



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2010eko EKAINA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2010

LITERATURA UNIVERSAL

Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bati erantzun behar duzu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Aukera bakoitzean 4 galdera daude. Bakoitzaren puntuazioa honako hau da:

- 1.galdera, 3 puntu
- 2 galdera, 2 puntu
- 3.galdera, 3 puntu
- 4.galdera, 2 puntu

2., 3. eta 4. galderak derrigorrezko testu eta irakurketei dagozkie. 1. galdera, berriz, irakasgaiaren beste edukiekin lotuta dago..

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

En cada una de las opciones hay 4 preguntas. La puntuación de cada una de ellas es la siguiente:

- Pregunta 1, 3 puntos
- Pregunta 2, 2 puntos
- Pregunta 3, 3 puntos
- Pregunta 4, 2 puntos

Las preguntas 2, 3 y 4 se refieren al texto y a las lecturas obligatorias. La primera pregunta, en cambio, afecta al resto de los contenidos de la materia.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2010eko EKAINA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2010

LITERATURA UNIVERSAL

TEXTU

Afalondoan irakurtzen zuen pixka bat, baina, liseriketarekin batera, gelako beroak eraginik bost minuturen buruan loak hartzen zuen; eta hantxe geratzen zen, kokotsa bere bi eskuen gainean, eta ileak zurdile gisa argimutilaren oineraino erorita. Emmak bizkarrak uzkertuz begiratzen zion. Eta berak ez eduki behar senar gisa, gutxienez ere, gauzez liburu artean lanean aritzen diren oldar isileko gizon horietako bat, eta azkenik hirurogei urtetan, erreumatismoen adina heltzean, beren frak gaizki josian ohorezko dominaz orratz bat eramaten duten horietakoa. Berak nahi izango zukeen, Bovary izen hura, halaber berea baitzen, ospetsua izan zedin, liburudendetako apaletan zabaldurik, egunkarietan errepikaturik, Frantzia osoan ezaguna eginik ikustea. Baina Charlesek ez zeukan inolako handinahirik! [...]

Gainera, senarraren kontra haserreago sentitzen zen. Adinarekin, jokamolde oiesak hartzen ari zen; bazkalburuan, botila hutsen kortxoak ebakitzen zuen; jan ondoren, mihingaina pasatzen zuen hortzen gainean; zopa hartzerakoan, hurrupada bakoitzeko koroka egiten zuen, eta, gizentzen hasia zenez, bere begiek, berez ere txikiak, lokietara igotzen ari zirela ziruditen masailondoan hanturarengatik.

Emmak, batzuetan, sartzien zion gerrontzean jertsearen ertz goma, bere korbata txukuntzen zion, edo bazterrera botatzen zituen hura jaztera zihoan eskularru histuak; eta hori ez zen, senarrak uste bezala, berarengatik; emazteak bere buruaren alde egiten zuen hori, berekoikeriaren lasaipenez, urduritasun erreaz. Batzuetan halaber, irakurri zituen gauzez hitz egiten zion, nobela bateko pasarte batetaz, antzerki-obra berri batetaz edo foiletinean kontatzen zen *handiki munduko* pasadizo batez; zeren, azken finean, Charles norbait zen, belarri bat beti irekia, onespren bat beti prest. [...]

Musika utzi zuen. Zertarako jo? Nork entzun behar zion? Zeren eta berak ezin izango baitzuen inoiz, balusazko jantzi mahuka-motzetan, Erard piano batean, kontzertuan, bere behatz aisitez bolizko teklak joz, haizexka baten gisa sentitu bere inguruan extasi-murmurioa barreiatzen, ez zuen beraz ikasten unatzeak merezi. Arramarion utzi zituen bere marrazki-karpetak eta tapizeria. Zertarako aritu? Zertarako? Josteak amorrarazi egiten zuen.

— Irakurri dut dena, zioen berekiko.

Eta han egoten zen suhartzak gori arazten, edo euriari erortzen begira.

Bai triste egoten zela, igandez; bezperetarako kanpaiak jotzen zuenean! Tuntundura adikor batean entzuten zituen, banaka-banaka jotzen, ezkilaren dangako pitzatuak. Katuren bat poliki-poliki zebilen teilatuetan, eguzkiaren izeki zurailletara bizkarra harrotuz. Haizeak, errepidean barrena, hauts boladak puskatzen zituen. Urrunean, tarteka, zakur batek uluaka egiten zuen; eta ezkilak, ixilgune berdinka, bere dangara monotonoan segitzen zuen, landetan barrena galduz.

Hartan, irteten ziren elizatik. Emakumeak eskalaproin lustratuekin, laborariak brusa berriekin, haurrak burutsik saltaka haien aurrean, guztiak etxeratu egiten ziren. Eta gauera arte, bospasei gizon, beti berberak, kokiloan jokatzen geratzen ziren, ostatuko ate handiaren aurrean.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2010eko EKAINA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2010

LITERATURA UNIVERSAL

A AUKERA

1. Azaldu abangoardia poetiko europarren sorrera, testuinguru historikoari eta garai hartako pentsamolde-aldaketei lotuta. Eman poesia abangoardistari atxiki dakizkiokeen bi poetaren izenak, eta adierazi zer mugimendu abangoardistatakoa den bakoitza. (3 puntu)
2. Identifikatu goian idatzitako zatia zer obratakoa den, eta adierazi izenburua, egilea, nazionalitatea eta zer une historikotan argitaratu zuten. Une historiko hori kontuan hartuta, zer eleberri-generotakoa da? Argudiatu, testuan errealitatea nola irudikatzen den kontuan hartuz. (2 puntu)
3. Obra honen egilearen berrikuntza estilistiko nagusietako bat zeharkako estilo librea dela jotzen da. Aipatu prozedura hori testuko zer pasartetan agertzen den. Zer helburu du? Zatia nahiz obraren osotasuna kontuan harturik, azaldu pertsonaien azterketa psikologikoak duen garrantzia. (3 puntu)
4. Testuak Emmari buruz egiten duen karakterizazio psikologikoa desengainu-jarrerarena da. Azaldu nola uste duzun agertzen dela jarrera hori testuan eta zein diren horren zergatiak. Zeure iritzia eta bizipenak oinarri hartuta, justifikatuta dago Emmaren desengainua? Zer uste duzu, oro har, protagonistak bizitzarekiko duen jarrerari buruz? Argudiatu alde edo kontra, zure iritziaren arabera. (2 puntu)

B AUKERA

1. Azaldu zer esparru geografiko (eta linguistiko) eta testuinguru historikotan agertu zen trobadoreen poesia, zergatik deitzen zaion horrela eta zer ezaugarri dituen formari eta gaiari dagokienez, batez ere "gorteko maitasuna" deritzona dela eta. Zer lotura dago haren eta *dolce stil nuovo*aren artean? (3 puntu)
2. Identifikatu goian idatzitako zatia zer obratakoa den, eta adierazi izenburua, egilea, nazionalitatea, zer une historikotan argitaratu zuten eta zer eleberri-generotakoa den. Azaldu obra kokatuta dagoen mugimendu filosofiko eta artistikoaren ezaugarriak, eta erakutsi nola agertzen diren testuan. (2 puntu)
3. Testuan agertzen diren deskribapenak aztertuz, azaldu zer deskribapen mota den eta egileak haien bidez zer lortu nahi duen. Zer lotura dago, zure iritzi, deskribatutakoaren eta deskribatzeko moduaren artean, batetik, eta deskribatutakoaren eta protagonistaren aldarrearen artean, bestetik? Lagungarri gisa, koka ezazu deskribatzeko teknika hori eleberri motaren ezaugarrietan, bigarren galderan eskatutakoaren arabera. (3 puntu)
4. Eman zure iritzia Emmak testuan duen aldarreari buruz eta obra guztian zehar duen jarrerari buruz. Justifikatuta dago, zure ustez? Uste duzu pertsonaiak obran duen amaiera halabeharrezkoa zela? Argudiatu. (2 puntu)